

UPV/EHUko ERREKTOREAREN ERABAKIA, 2025eko EKITALDIRAKO KONTRATAZIO PLANA ONARTZEN DUENA.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora dakarrenak, ho ezartzen du 28. artikuluan 4. puntuan ezen sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoko jarduera programatuko dutela, aurrekontu ekitaldi batean edo urte anitzeko aldi batean garatuko dituztela, eta beren kontratazio plana alde aurretik ezagutaraziko dutela, 134. artikuluan aurreikusitako aurretiazko informazio iragarki baten bidez, gutxienez erregulazio harmonizatu baten mende geratuko diren kontratuak jasoko dituen.

Bestalde, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, 6.2 artikuluan ezartzen duenez, administrazio publikoek helburu zehatzak dituzten urteko eta urte anitzeko planak eta programak argitaratuko dituzte, bai eta horiek lortzeko aurreikusitako jarduerak, bitartekoak eta denbora ere. Horien betetze maila eta emaitzak aldi-aldi ebaluatu eta argitaratu beharko dira, neurketa eta balorazio adierazleekin batera, administrazio eskudun bakoitzak zehazten duen moduan.

Arazuko aurreikuspen horiek betez eta UPV/EHUko arloek egindako zenbatespenen arabera, 2025eko Urteko Kontratazio Plana egin da. Bertan jasotzen da, erregulazio harmonizatuko kontratu guztiei buruzko informazioa, horien lizitazio iragarkia 2025eko abenduaren 31ra arte argitaratzea aurreikusten delarik, kontratazio publikoaren jarduera 2025eko aurrekontu ekitaldian edo, harago, urte anitzeko aldi gauzatuko den kontuan hartu gabe. Erregulazio harmonizatuaren menpeko ez diren eta aldi horretan lizitatzea aurreikusita dagoen zenbait kontratu ere sartu da.

Plan honek gutxi gorabeherako datu ez-lotesleak jasotzen ditu, ez baitu behartzen bertan jasotzen diren kontratu guztiak lizitatzera, ez eta iragarritako baldintzetan ere.

Erabaki hau emateko eskumena UPV/EHUko errektoreak du, UPV/EHUren Estatutuetako 230.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Ondorioz, **ERABAKI DUT:**

Lehenengoa. Onestea UPV/EHUren 2025eko ekitaldirako Urteko Kontratazio Plana, zeina ebazpen honi erantsi baitzaio eranskin gisa.

Bigarrena. Argitaratzea UPV/EHUren 2025eko ekitaldirako Urteko Kontratazio Plana Kontratazio Publikoa Euskadin plataforman (KPE-CPE) eta UPV/EHUren Gardentasun Atarian.

Leioan, sinadura elektronikoaren datan

Joxerramon Bengoetxea
ERREKTOREA